Ihesi

Txema Garcia-Viana

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1986 Txema Garcia-Viana
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1986
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Balbearen hitza

Suge beltza
narraztuz
hire lepoaren jiran
eta
beranduegi belauniko jartzeko
ez dik aditzen
ez dik konprenitzen
bere senak agintzen ziok
koska egiteko
ez galdetu zein deabruk
bidaliko zian
beranduegi negarrari emateko
ere
HOR ZEGOK BALBEAREN HITZA
itotzen hauena
eta orain kolega
etsitzea baino ez duk
gelditzen
betirako.

Ordaina

Huts eman
diguk eta
azken ttanttaren
egonean
orain
hire aurpegia
bustiko diana
odolez.
Huts eman
diguk eta
azken unearen
harian
ikusten haut
kulunkan
erortzeko.
Huts eman
diguk eta
hire malko lodiek
gure eskuek
marraztu epaia
isladatzeko

baino

ez diate

balio

huts eman

diguk eta...

Iruñea

«Nork somatu
ote?»

Oihu lehertuen
oihartzun
oldartuak
odolostua
maniki hauskorraren
gorpu
bilutsia
eta han
handik zetorrek!
Izozturik
mutturdinaren
azken hitza
bularretik jausita
eta han
handik zetorrek!
ume laruaren
figura
zilbor-hesteaz

urkatua
telebista antenatik
eta han
handik zetorrek
agure ximelaren
urrezko haginak
lerdetutako
odolezko putzutan
murgildurik
eta han
gu
elkarren ondoan
barrez.

Negar

Kalea hutsik
errege
zeru goibel
arrano
kimu ximel
ahaltsu
zingirak borborka
bakar
enarak ito
unatu
mataza gorri
odolezko
panpinak malko
negar.

Alda

Harro oihanaren
beltzean
iratze garroek
atxikirik
hamaika haizeren
gidarri
topaleku
arbasoen ohantzea
lurraren baitan
arraildurik
eta
erroak urtuko dituen
izerditan
lats gardenen
jagole
aittaitta guttuna
burua makur
nirekin
trapitxeoan.

Alde!

Ez haut inoiz
gogoko izan
ba al hekien?

Ez bilatu nire
eskua
hire garfioaz
urratzeko
ken betiereko begitarte
alaitsu
prefabrikatua
nire aurretik eta
zorabiarazten nauen
hagin kremailera
hori
itxi
betiko

betiko!

Eroetxea

Laga
malkoz beteriko
motxila
bazterrean
eta
ongi etorri
gurera
erregina beltzen
mundura
ziztada mortalez
orgasmoa
gozatzen dutenak.

Ongi etorri
gurera
marioneta deslaien
zokora
hire esperantzaren
truke
gorrotozko haritan
elektrokutatuko

hautenak.

Ongi etorri
gurera
ondinen artera
beren ferekaren
lozorroan
bihotza
erauziko
diatena
Kixmi
Handiari
eskaintzeko.

Hi, gizon haundi

Uso pare bat txortan
hire plazan
neskame bakartia
ilargiaren segaz
zainak urraturik.
Hi, gizon haundi!
Kale garbitzaileak
jeringila puskak
ezin osaturik
hire plazan
poetek burua bota
beharrean
tximiniek erditutakoa
esnifatzen dute
eta baita bohemioak ere
beren gitarren zurkaitzez
erdi erdian
paldotuak.
Hi, gizon haundi!

Barrez ito

Ez begiratu horrela!
Ez mindu gehiago arren!
                Hilotzik bait dago.
Eta zuei trufa egiten dizue
eta maldizioka ari zaizue.

Errukirik berari?
Orain goibeltzen ari?

Barrez ari da etengabe
bere hoztasunetik
bere isiltasunetik
ez zen zuen adinakoa
lurra gogor zapaltzen zuen
                beldurrik ez.
Heriotzaren gozoak jotzen zaituzte
baina zuek arrastaka ibiltzera
                kondenaturik
nork eskatu konpreni nazazuela?

Maisu

Hitzak
metalezko lerdea
gorbatatik behera
limurtuz
berunezko kateak
hire buruhezurra
makurtarazirik
umeak antzaldatzen
hire jugularra
urratuko diaten
ongi hezitako
kimuak
eta
irribarre inozoek
gorriz tindatu
ormak
zelai bihurtuko
dituen
jario gorria.

Labezomorroa

Bihurri lurrean
arrastaka
soilik bizi nahi huen
arrastaka
ziztada alu horrek
hil hinduenean
ez zekiat zein liburu
misteriotsutan
hire patua izkiriatu
halabeharrak
beha iezaiok hire denaren
istorioa amaitu duenari
sasijainko ahalguztidun
horri
kulunkan
hire parean etzanik
azken hatsa
bomitatuz
eta bere kopetan limurtuz
beste labezomorro batek
hartu dik
txanda.

Blandi-blup balitz bezalako mamua

Isilik
mugi hadi!
Hire aldamenean
bait dago
hausnar
hor erori ziren
haren garroetan
estrangulaturik
«Mantekax» lagun mina
halaber sei panpina
—«ibiltzen» zekiten horietakoak—
eta bi etsai
—horiek ere erortzen dituk!—
oraingoan ez printze ausartik
ez bukaera gozoko elerik
eta hausn
tximeleta inozenteen
zelatan
hausnar...

Neska eskola

Bizkarra tente
ibilera orekatua
eta
Sor Klotilde mozkortu egin
Sakristian
aita Andia
keinuka eta
mutila gogoan
lau «Gure Aita»
bost errita
horra
andereño polita!
hanka zabalik
masturbatzen
serora
norbaitek gurutzea bota
zuenean
liburu santuren baten
zamaz
buruhezurra
puskatua
Ezkiogako birjina.

Amazuloa

Amapuntakoak aspaldi desagertu paradiso eta
zorionarekin
batera eta orain hemen hago altzairuzko txirbiletan
jaiorik denon modura bizitza
labanazo batek ongi negartutako
suizidioak
edo-eta herri oso baten zapalkuntzak erabakitzen
duenean negarrontziak huskeria eta
irribarre aterziopelatuak
eskuraezinezko luxoak eta ez niri
ipuin arrosik simaurtegian kokatuak
eta iraun behar
hik eta nik.

Galdu

Galdu egin duk
eta lurpean hago
gogor apustatu eta
dagoeneko errainuak lagun
soilik
hire buruhezurra horitzen
ez diat errukirik
—indartsu bait hintzen—
itas zurrunbiloan
preso
eta oraindik maitale adolezenteek
—ahuletarik ahulenak—
gogoan omen
galdu egin duk
eta lurpean hago.

Pareta

Pareta hori, gure pareta duk.
Luze, oker eta zikina
gure desio lizunen oihal zabala,
«haruntzago» baten muga zorrotza.
Haren magalean Pablok amodioa egin
ikustezinezko musa batekin,
eta txikitan idiarena jotzen genian
amaigabeko paperezko
orgasmotan.
Gure gogoak marraztutako hamaika
burutazioz
nazkaz
pozez
josirik adrilu beltzak,
amapuntako babestaile hi,
gure malkoez indartu eta luzatutako
sustraiek
gogor eusten ziotek.

Pareta hori, gure pareta duk...

Kolega

Hiri zerbait esan ber diat
entenitzeko moruen,
estraiñeko aldiz
ikusi hintuanin,
plazan jarrite haokan
kanutue eskuen,
parrez neri beira...
beti tamañen.
«Ez diabe konprenitzen
kolgaute natxiok!»
Hi onena haiz, ezin ukau.
Ipurdie bankuai lotute
zaharrak hiri letxe txar guziek...
«Ez diabe konprenitzen
kolgaute natxiok!
Zer gehio esango nikik...

Etsaia

Orain hire aurrean negok
etsaia
nazkatua
inork betetzen ez duen
esaldi politik
entzuten
eta hil egingo haut
ez santu gehiagorik!
Hamaika burutazio sagratutan
bizimodua eginik
ez jakitun gehiagorik!
Bere bekokiaren zabalaz
herria itsutzen duenik
eta hil egingo haut
inork ez bait du indarrik
ene eskua geldiarazteko
eta hil egingo haut.

Hire bila

Hamabi pila
lau t’erdina
boltio
gorrotozko
mugimendu
mugatuz
hire bila
ezinbestez
eta
har azken zerbeza
txurrutada
lasai
bota oroitzapen
bortitzena
hiri begira
barrez dagoen
erretratuaren kontra
lagun
hire atsoaren begitartea
dastatzeko
leherketan

mugimendu

mugatuz

hire bila

ezinbestez.

Harrapaturik

Beleek oihal margotsua
bildu
negar anpuloak
izarniatzen
utziz
eta orduan
hire izate ziztrina
haundi isladatzen
ormigoizko itzalean
esku hausleak tinko
eta aurrera
hamaika argi
lepoa luzatuz
zelatan
eta aurrera
beldurra aspaldi
xurgaturik
lurra ikaran
hasi zenean
eta mila mozorrok
inguraturik

metalezko uztarria
jantzirik
barre egiten duk
hilotzik bait hago!

Azken karta

Zorionak! esan dinate
eta mundua oinazpian jarri.
Besarkatu egin haute
eta fereka tentagarria eskaini.
Milaka irribarrek bildurik
beren orgasmo putan sartu haute.
Iada ez haiz beste txotxongilo maneiagarri bat

besterik.
Eta orain bakar bakarrik
neure gorroto eta higuina
adieraz zitzakenat.

Harrapa egin haute

Bilarra hutsik.

Harrapa egin haute
gu eseririk geudek.
Harrapa egin haute
musika txirrian etengabe.
Harrapa egin haute
orduak luze zieztik.
Harrapa egin haute
haurra ttipi-ttapa hasi.
Harrapa egin haute
bilarra hutsik.
Harrapa egin haute
gaur mozkortuko gaituk.
Harrapa egin haute
haurra ttipi-ttapa hasi.

Puta bat hil duk!

Kaioak ere mozkorturik zebiltzek hi!
Eta Marta ez zegok betiko kantoian,
sargoria berriz ere botaka ari
eta gu mehatxuka barregarri.

Badakik guk ere bihotza daukagula?
Zetazko ipuinetan azaltzen bezalaxe,
eta batzutan negar-malkoak
darizkigogu,
ezkutuan
gutxitan...

Marta ez zegok betiko kantoian
kaioak ere mozkorturik zebiltzek hi!
eta odola borborka
izerdi patsetan...
eta gu mehatxuka barregarri.

Zergatik hautsi dun
gauaren oreka?
beltzaren fereka?

Non hire keinuaren kexua?
Zetazko ipuinetan bezalaxe,
eta batzutan negar-malkoak
darizkiogu,
ezkutuan,
gutxitan...

Hire hizkera zakarrak
ez gatxin jotzen
eta zaborra umezurtz, zain
geure begi kargatuek ezin ikusi
hire plastikozko itxura malgua,
hire bular giltzapetuen garraixia
ezin somatu...

Jendearen marmarak erotzen natxik!
Begi zorrotzak lurrean eroriak
isladatu egiten dituk!
Kalean behera
irristatzen!
asfaltoa gogoz
koloreztatzen!
Puta bat hil duk!
Ez besterik.

Ohizko panpina anonimoa
eta muzin bat boteaz
bideari darraikiote.

Kaioek ere mozkorturik zebiltzek hi...!

Nirekin

Rockak paretak
jotzen dituenean
usapalak olio putzutan
jausten direnean
itorik
eta neure paisaia
beltz eta zilar
larru eta metala
nagusitzen denean
nire ondoan behar haunat
zerbezakin biok itotzeko
oroitzapenek
—labana zorrotzak—
barrena urratzen
didatenean
malkoak ezin atera direnean
toki bat uzten dinat
neure ustelkerian.

Azkena

Eroak pareta
etsipenaren etsipenez
urratzen duen bezala
eta erromantikoak azken malkoa
suizidatu aurretik
ixurtzen duen bezala
marioneta hordiak
gauaren lozorroan
botilari datxekion bezala
esperantza ttikienaren bila
—balizkoenetariko balizkoena—
abiatu gara
ezerezean
barna.

Ihes

Kuprezko hodeiek
orroea
hire gorazarrez
etsipenez
tindatuko
gaituztenak
ilargia
Gauekoaren begi
babestailea
lauso
hire odolez
negar
eta auzoan
oraindik geratu
burdinezko
izarrek
laztandurik

hire itzal
bihurritua
preso.

Timur Lang

Sugegorri zapalak
diosala hari
basamortuko zaldun
noragabetua
bere menpeko
burezurdun ortzeak
Temudjinen beraren
kimu
akitua
orain
zertarako erromes
Timur Lang?
Samarkanda bila
zangoak zurkaizturik
hire ezpata ugerrak
erre
haretan
«Txarli» igaro
zenean
motorrari oratua
eta hartu

hartu eta segi
egin zenuten
dunatzar horretan
jarririk
«Maria» keetan barrena
galdurik
burua
barre dagizue
orain
Samarkanda existitzen
ez dela eta
barre.

Seaska kanta

Mundua errobera
biraka
etengabe
gizontxo asmatiko batek
zula dezan arte
zula
eta barre
garaipenaren poz zitala
eta herensugeek
aitatxoa hilik
anpulo gorri
boteaz
eta
egizu lo
lo.

Vati

«Ba al dago ezer
zinez axolarik duenik?»

Ilea lepoan kiribildurik
ihesi beharre
hire gogoaren legez
eta ezin gehiago
arrastatu asfaltoan.

Kristalak apurtuko dituk
munipa puta horri txistua
botako
edo-eta hik dakianari
labanazo bat emango
txakurtegi guztietatik pasa
inor baino askeago
kaleak gogortu hau
bere magalean harrapatu.

Zer egiten duk
whiski botita eskuan?

Gaur trena goizago pasako
hire burua botatzeko.

Lehen

Eskolarakoan ikusten nuen
bazterrean haiduru
liburuak eskuan
begirada herabez
sor berriko desioz
laztandurik
beldurraren eskaparatean
babesturik
plastikozko panpina orduan
bizitzan ibiltzen hasia
gogoa ez dakit zein kontutan
arrunt galdua
hamaika maitale
inguruan
ezkutuan
bere sare somaezinezkoan
lazki eroriak
hainbaten arantza samina...
gure maniki
anonimoa.

Katamea

Pelutxezko katamea
galdu zaigu oihan
zimentuzkoan
eta herabe gure hatzaparrak
—bi egunetan behin
zorroztu beharrekoak—
tente gure zurde beltza
—funtsaren oinarria—
ondo galdu Laxek haren aztarna arrosak
lupetzan lazki desagertuak
eta ilargiak dena zelofaneztatu orduko
hamaika tipatze kosmikoren
poderioz
arras harro hiribidean zehar
zilarrezko pantera
zauli gaueko borreroen
tartean pasea
eta egunsentiaren ohantzean
biar berriz ikusiko dut
neure katame
guttuna
lo.

Hamabost

Hamabost urte
moldatu berriak
eta zerbeza bat eskatu
eta birikak honezkero
gorrotoz bete.

Hamabost urte
altzairua patrikan
larru leuna
begi argia
oraindik
gazteegi
bihotza lehertzeko
eta begira egiten duk
guk hainbat
asfaltoa gorrotatzen...
gazteegi
bala hori botatzeko
hiri

—eta eskolan meza bat

eskaini omen
hire arimaren
alde—.

Altzairuzko panpina

Izar langarraz
bustia
izotz begiek
anpulo bakar bat
erditu ez
barrez ahaztu zuena
egun hits batetan
altzairuzko panpina
hi!
Maitasunez hustua
asfaltoak
gorrotozko maletak
eginik
Gauekoaren altzoratu
zena
altzairuzko panpina
hi!
Saguzaharrek
orraztu
adatsa
haizeak eramanki.

Eskorpioa

Zirrikitu
ezkutuenean
gorderik
burua
ZAI
eguzkia lutoz
jantzi zenean
txupa beltzean
giltzapeturik
ERNE
panpina hauskorren
mingotsa
dastatu huenean
hire erraiak
metaldu hituen
ARRISKUTSU
galtzen
ikasi huenean
koskazo mortala
eman
hire bururari

AUSARTA

ehiza garaia
irekirik
inguratu hindutenean
eta
gure whiski
malkoek
ezin herdoildu
hire altzairuzko
bularra.

Bukaera

Bi semaforo
lau kotxe
dena bukatu zen
eta erlojua aurrera
latorrizko automata
sei gurpil erre
gomazko negarra
bomitatzen
argi gorria
haragi beltza
dena bukatu zen
eta hire eskuan
botila puska
zainetan sarturik
lasai egin ezak lo
dena bukatu bait zen.

Guttuna

Laztandu nahi diat
hire gorpu ustela
iada har jana
dena
soilik.

Musukatu nahi diat
hire esku hezurra
higatu
arte.

Sentitu nahi diat
hi hintzena
garaun lehertuetan
barna.

Urte zaharreko gaua

Goiko bonbila funditurik
Mari kobazulotik atera
basaorgiatan galtzera
Olentzeroa asfaltoaren kontra
bomitatuz
Galtza Gorri lepahezurra
hautsita
Gorbeatik behera eta
Iratxoak sifilisak
harturik
burdel margotsuetan
zehar.

Behar haugu eta

Mirestua izan hintzen
hamaika adolezente
hire antzekoa izaten
saiatu eta
unibertsitateko leaderra gero
zertan hago?
eta ukabila zimeldu
gogoa agortu
kemena haizetu
zertan hago?
Harria jeringila
barrikada zabortegi
itxaropena infernu
bihurtu eta
zertan hago?
Behar haugu oraindik...

Adiorik ez

Gandorra kiribilatuz
hirekin ari dituk
uhain beltzak
beren mezua
zipriztintzen
hire begietara
behar hautelako
halabeharra prestatzeko
eskatzen diatelako
hire gogo
etsia
dasta
nahi diate
zai
muzin bat boteaz
azken hatsaren
hariari
darrakioan
esperoan
dauzkak
gandorra kiribilatuz
uhain beltzak.

Ez

Amodiozko kartarik idaztea
ondo ahaztua zeukanat
aspalditik
loreak burdinazko ziri
ilargia gaueko zauri
besarkada atzetikako traizio
bihurtu zirenetik
maitasun ustela
koldarren jokoa
eta ez orain
kontu gozorik
ez orain
esperantza nahirik
bizitza egunekoan
eguna mementukoan
bukatzen bada
nolatan
hatorkit
maitasun eske?

Hi oroituz

Ez haut gehiago
futbolean ikusiko
eskolan
irribarre zabala
esku gogorra
ez haute gehiago
eskolatik botako
lehen greba gogoratzen?
Garai ilun sotanadunak
nondik ote miseria horri eusteko
horrenbeste kemenik?
Hire esan beharrak
apaizak hainbestetan biluztu...
Sasoi zailak
barre erraza
irrintzi adolezentea
kamioi alu batek itorik!
Iadanik pirerik ez
hamaika zigarro ezkutu
hire dena zapaldua...
Zimentuari aurpegia emanez

—hi horietakoa bait hintzen—
ez gaituk gehiago
ondina urdinen atzetik
ibiliko
baina orain eta beti
hi nagusi
lagun.

Zai

Eta orain eserita negon
whiski botita hutsik
hautsontzia bete
hire zai
metalezko mila piztiren orroea
—erotze itukina—
gure musikaren burdinazko kolpeak
neure baitan urtzen
hire zai
bi lagun bost etsai
garaje zaharrean isekirik
hamaika zertzelada paperezko
hire zai
eta eguzkiak
—egunekoen kolaboratzaile
puta—
gure plastikozko irudi ubela
apurtzen duenean
bortizki
aurkituko naun
—ostera ere—
hire zai.

Ezin ahaztu haunat

Musika jarioak
erditutako zertzeladek
gorpuzten hautelako
ezin ahaztu haunat.

Zerbeza apanaren
zuritasunak
zipriztintzen duelako
esku artegaz
baldarki
moldatutako
hire irudia
ezin ahaztu haunat.

Begirada unatua
lehertzen denean
asfaltoaren kontra
hire leuntasuna
marrazten delako
ezin ahaztu haunat
sekula.

Futuroa klaro ziok!

Oldozkai soilkitutan
must eginik
zirkin-zarkin karabilkatsuetan
iraungi
xedarri arbingarriaz
nire enkarioa matzikaturik
eta erortzer orzondoan
entzite andregaturik
eta
bi ponpoil bekarantzea
tarratatuz.

Ikusten

Zainak
zeharkatuko dituen
kristalean
barrez
azken hatsaren
lurrunean
marrazturik
herioaren
ikatz begietan
isladatzen
ikusten haunat.

Zuloan

Hire malkoak
usteldu
hire eztarria
urratu
hire eskua
zabaldu
hire arnasa
larritu
hire hitza
urtu
hire larrua
ximurtu
baino lehenago
zapalduko diat
negarra
negar eraziko diat
zapalketa.

Astelehena

Gaur zerbezaz mozkortuko gara
pozik geudek!
Kondonak ederra eman dio
txuloputa horri!
Odolezko dizdirak
gure aurpegiak tindatu,
begiak zorroztu...
pozik geudek!
Gaur zerbezaz mozkortuko gara.

Hire txanda

Utzi eramaten
musika horrek
odolezko.

Utzi inguratzen
doinu latz horrek
metalezko.

Zutik agintzen dikena
hire larruzko
koraza
oldartzen dikena
behin eta berriz
odola borborkatzen
dikena eta
laga elbarritu kakoa
txistua botatzeko.

Utzi erotzen
bengantza gozoak
hire txanda
heldu bait zaik!

Ez besterik

Hitzak
neure hatzetatik
behera
txirrian
lirdingatsu
malkoekin
nahastera
oin eskuz
lotuko nauen
lika sendoa.

Nahiak
txarrantxatik
dilindan
higanazko bidezidorrean
odoldutako
hondakinak
ez besterik
hiri eskaintzeko.

Bai, bai, bai

Buru makur
jaio hintzelako
«bai» esaten
ikasi huelako
azkarregi
barre egiten
diat
bulegoan narraztuz
izerditutako dirua
daukaalako
nazka ematen
diak
BAI, BAI, BAI
hire burua
saldu dualako
hire sabela
ordain apurrez
betetzeko
BAI, BAI, BAI
gorbata hitsetik
ibilerazten hautelako

eztarri lehertuen

kapritxoan

txistua

botatzen diat

ene miseriatik

BAI, BAI, BAI

Aske

Infernuko legendunak
berpiztu zirenekoaz
ari nauk
ilargi errainuetatik
dilindan
haragi lingirdatsua
bat eginik
—zakur unatuak
lekuko—
hire begietako burdinak
ezabatzeko.
Infernuko legendunek
beren mozorro urratua
azal zutenekoaz
ari nauk
hamaika begitarte
desitxuratu
hire eskuak
zimentuzko justizian
pitzaturik
askatzeko

mundua
haien kiratsaz
garbitzeko
eta
infernuko legendunak
berpiztu zirenekoaz
ari nauk.

Mantxa bat koltxoian

Gaizki egin duk
lo
begira
ondo
sahietsezurretan duk
hor!
gizaki ttiki
xelebrea
ez zanpa
hor!
bi muturdun
gorbata
hirekin ari
kontuz
hor!
hamaika azalpen
siko-fisiko
eta matematiko
hire kontra eta
adi
hor!

bere argitasunaren
menpe
omen
eta hiri zer
mantxa gorri
baten
mintzoa?

Larrutik

Thomas S. Eliot, Charles Baudelaire
Emile Faguet, Amintore Fanfani
Lau enara, bi karnau sekaderoan
tiro hots bakar batek auzoa
ikaratu
Boris Leonidovich, Wolfgang Pauli
Pücker-Muskau, Ludwig Heinrich
Luisa negarrez, absurduaren gain
gure esku ikaratiek laztandurik
alferrik
Alja Rachmanova, Yosef Agnon
Austin Allibone, Samuel Beckett
Ilargiak dosisa falta, zurbil
norbaitek ordainduko du hau
larrutik
John Dos Passos, Fedor M. Dostoievski...

Idoiari bertso bi

Guttuna:
Hire taupadak
—gerra danbor ozenak—
ene haragian barrena
sentitzen dizkinat
hi larriturik
pozik ni.
Hire babes nahia
—etengabeko oihu osila—
ene eskuetan bildurik
hi negarrez
barrez ni
zintzurra bihurritzen
dinadan artean
hi hilik
lasaiturik ni.

Zerbait esateagatik

Eta kolgatu gehiegi
bazterrean
bertan
idiota asko ere bai
ni aurreneko
hi bigarrena
intelektualek SIDArik ez
nork aterako
beren tontotasunetik?
nik ez
dut esperantzarik
hirea ustelduta bai?
Gorde ezak, txikitin.
Orain mozkortzera niak
nire muturrak
botila tankera
eta
hirea liburuari
atxikia
fale hi!
Ni hobeago

halere
hi baino
izorra hadi!

Poliki

Norgehiagoka ari gaituk?
Poliki hurbil hadi!
Trapitxeoa gaizki joan zaik
gaurkoan
eta buru makur
eskailera amaigabeetan
gora
aita zirrosisak janda
medikuek goxo hiltzen
lagunduko ziotek eta
atsoa malkotan
hire barren lehorrak
jada amodiorik ezin sortu eta
paradisuak garesti pagatzen dituk!
kolega.
Norgehiagoka ari gaituk?
Poliki hurbil hadi!
Botilakin hizketan
orain
azken koskazoa emateko
prest

zer axola dio?

Norgehiagoka ari gaituk?

Poliki hurbil hadi!

Milesker

Barre egin ezak
zaharren munduan
ez zegok erremediorik
zaharren munduan
barre egin ezak
orain
odola irakiten
nazkak zerebrua
jan
barre egin ezak
zaharren munduan
hiretzat apropos egina!
Barre egin ezak
kartzelan
MILESKER!
Barre egin ezak
Metadona zurrupatzen
MILESKER!
Barre egin ezak
gatiloari tira eginez

MILESKER!

Zaharren munduan!!

Fale.